



## IRAGARKIA

Alkateak 2026ko ekainaren 17an emandako dekretu baten Bergarako Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak kudeatutako programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen arategiari jarraituz 2026an dirulaguntza banatzeko deialdia onartu da eta honen bidez argitaratzen da:

**Begarako Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak kudeatutako programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen arategiari jarraituz 2026an dirulaguntza banatzeko deialdia.**

### Xedea:

Begarako Udalak, bertako haur eta gazteen heziketan lagungarri izan dadin, herriko ikastetxeen jardueran lagundu eta izaera hezitzailea duten ekintzak sustatzeko borondatea du. Helburu hau gauzatu ahal izateko, Udalaren diru baliabideek ahalbidetzen duten neurrian dirulaguntzak emateko irizpideak eta horiek arautzen dituen Araudia prestatu du.

Ondorengo jarduerak diruz laguntzea da araudiaren helburua:

1. Ikastetxeek egindako hezkuntza, euskara, kultura, kirol eta gizarte izaerako jarduerak, Udalari aurkeztu eta Udalak gizarte ikuspegitik interesgarritzat jotzen baditu (araudiaren 12. artikuluan jasotako jarduerak).
2. Azpiegiturak, ondasun higigarri edo higiezinak edo izaera amortizagarria duten inbertsioak, baldin eta 12. artikuluan adierazten diren puntuekin erlazionatuta badaude

### Onuradunak:

Ondorengoek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak: Bergaran helbideratuta egon eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako zikloak eskaintzen dituzten ikastetxeek.

### Zuzkidura ekonomikoa eta diru-laguntzaren zenbatekoa:

-Aurrekontu zuzkidura: 45.000 euro.

-Aurrekontu aplikazioa: 1.3330.481.326.20.01.2026. Barne kodea: 409

-Dirulaguntzaren zenbatekoa:

Ikastetxeak duen ikasle kopuruaren arabera ezarriko da gehienezko dirulaguntza.

Zenbateko hori kalkulatzeko, Udalak kontzeptu honetarako ezarritako diru partidaren kopurua hartu eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa eskaintzen duten ikastetxeetan guztira matrikulatuta dagoen ikasle kopuruagatik zatituko da. Horrela, ikastetxe bakoitzak, matrikulatuta duen ikasle kopuruaren arabera, gehienez jaso dezakeen dirulaguntza finkatuko da.

### Eskaerak aurkezteko epea eta modua.



Iragarki hau argitaratu eta 10 egun balioduneko epea egongo da eskaerak aurkezteko. Aurtengo deialdia udalaren atzerapenez argitaratu denez, orain arte aurkeztutako ikastetxeen eskaerak baliozkotzat joko dira eskatzailearen adostasunez eta ofizioz.

Eskaerak aurkeztuko dira Begarako udalaren aurrean B@Z Begararren Arreta Zerbitzuaren bitartez, udal egoitza elektronikoan edo 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein eratan.

Begara, 2026ko ekainaren 26a

Jarduneko Alkateak